

# Hezkuntza sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzutea

*Bere marko etikoa*

- giza duintasunaren balioa,
- desberdintasunen errekonozimendu enpatikoa,
- pertsona zaurgarrienen babesa
- Hezkuntza prozesuan baldintzen berdintasuna gauzatzeko behar diren neurriak hartzeko erantzukizuna.

EHAA BOPV

**78/2024 DEKRETUA**

127. zbk
2024-06-28

*bere arau-esparrua…*

- Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak.
- UNESCO «Hezkuntza 2030 Ekintza Esparruak».
- 3/2020 Lege Organikoa ⇨ LOMLOE.
- Curriculuma garatzeko dekretuak: 75/2023; 76/2023; 77/2023.
- 17/2023 Legea, EAEko Hezkuntzari buruzkoa.
- 8/2021 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak indarkeriatik begiratzeko babes integralarenak…
- 2/2024 Legea, Haur eta Nerabeei buruzkoa.
- 13/2016 Dekretua, Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa.

## I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

**1.art.– Xedea**

**Funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietan ikasle guztien aniztasunari erantzuteko modua antolatzea**, eta, bereziki, hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoei eman beharreko erantzuna.

**2.art.– Aniztasunari erantzutea**

«Hezkuntza-arloko politika, kultura eta jardunbideen multzoa (planak, metodologiak, estrategiak, neurriak, laguntzak eta abar), betiere multzo hori ikasleen garapena erraztera bideratuta ez ezik, haien gaitasunetara, ikasteko estilora, interesetara, egoera pertsonaletara, sozialetara, osasun-baldintzetara eta baldintza ekonomiko, kultural eta funtzionaletara egokituta ere baldin badago».

**3.art.– Jarduketa-printzipioak**

Pertsonaren duintasunarekiko errespetua, gizarteratzea, prebentzioa eta komunitate-lana, IDU-irisgarritasun unibertsala, ekitatea-bikaintasuna, parte-hartzea eta erantzunkidetasuna, haurraren/nerabearen interes nagusia, autonomía, kulturarte-kotasuna, hezkidetza-berdintasuneko hezkuntza...

## II. KAPITULUA. Hezkuntza-sistema inklusiboaren erantzukizunak

**4.art.– … Sailaren erantzukizunak**

**Politika eta estrategia**: plan estrategikoak, programak, gidalerroak, prestakuntza juridikoko planak

**Baliabideak**: pertsonalak eta materialak, plangintza eta antolamendua, zuzkidura-irizpideak, aprobetxamendua.

**Parte-hartzea, lankidetza eta koordinazioa**: familiak eta ikasleak, elkarteak; sistema soziosanitarioak, beste administrazio eta erakunde

**5.art.– … ikastetxeen erantzukizunak**

**Ikastetxearenak**: haurren aniztasunari erantzutea, hezkidetza, hezkuntza-orientazioko taldeak bultzatzea, irakasle-taldearen koordinazio sistematikoa.

**Zuzendaritza-taldearenak**: hezkuntza-proiektu inklusibo bat gidatzea, DUA bultzatuko duen curriculum-proiektu bat, irakasleen prestakuntza

**Irakasleak**: bizikidetzako eta ikaskuntzako ingurune seguruak, prebentzioa, curriculuma malgutzea, arrakasta-itxaropenak…

## III. KAPITULUA. Hezkuntza-erantzunaren neurriak-laguntzak

**6.art.– Aniztasunari erantzuteko neurriak eta laguntzak**
- **7.art.– Unibertsalak**
- **8.art.– Osagarriak**
- **9.art.– Intentsiboak**

**10.art.– Hezkuntza- edo prestakuntza-premia bereziak dituzten pertsonentzako lanbide-heziketa.**

…laneratzera eta enplegagarritasunera bideratutakoa, gizarte-, kultura- eta lan-bizitzan parte hartzeko aukera ematen duena.

**11.art.– Oztopoak identifikatzeko prozesua eta neurrien proposamena**

Prozesu sistematiko honen helburua da ikasleen garapen pertsonala eta soziala zailtzen duten oztopoak desagerraraztea, baita ikasleen ikaskuntza-prozesuan parte hartzea eta aurrera egitea ere. **Prestakuntza-ebaluazioa** kontuan hartuko du, eta **neurrien eta laguntzen proposamen** batean amaituko da.

Prozesu honek **ebaluazio psikopedagogikoa** ekar dezake, neurri unibertsalak/osagarriak nahikoak ez badira.

**Funtsezko bi une** kontuan hartu behar dira prozesuan:
- **12.art.– Detekzio eta esku-hartze goiztiarra**
- **13.art.– Hezkuntza trantsizioak**

## IV. KAPITULUA. Onarpena, eskolatzea eta Hezkuntza arreta

**14.art.– Ikasleen onarpena eta eskolatzea**

**Printzipioak**: ekitatea, hezkuntza-inklusioa, gizarte-kohesioa sustatzea eta ikastetxea aukeratzeko eskubidea errespetatzea.

**Intentsitate handiko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleak** zerbitzu integratuen programak ematen dituzten zentro espezifikoetan eskolatzeko aukera.

**Hezkuntza-sisteman berandu sartzen diren ikasleak** adinaren arabera dagokiona baino maila bat beheragо eskolatzeko aukera.

**Adimen-gaitasun handiko ikasleen** derrigorrezko eskolatze-aldia malgutzeko aukera, salbuespen gisa (gehienez 2 urte, eta inoiz ez etapa berean). Batxilergoa ikasturte batera murrizteko aukera.

**Funts publikoekin sostengatutako ikastetxeetan plazak erreserbatzea**, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen bidezko sarbidea eta presentzia bermatzeko.

**15.art.– Eskolatze partekatua**

*eskatzen du*

**16.art.– Jarduketa-plan pertsonalizatua [JPP]**

## V. KAPITULUA. Eskola inklusiboari laguntzeko sarea

**17.art.– Laguntza-sarea**

Hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten pertsona, eragile eta erakunde guztiek osatzen dute, eta helburua ezagutza, esperientziak eta baliabideak (ikastetxearen barrukoak, kanpokoak eta komunitarioak) partekatzeko lankidetzan aritzea da.

**18.art.– Laguntza Zerbitzuak**

Aholkularitza emango dute, bai eta laguntza teknikoa eta prestakuntzakoa ere, aniztasunari eman beharreko erantzuna eta laguntza-beharrak dekretu honetan ezarritako printzipioekin bat etor daitezen.

**19.art.– Hezkuntzako ikuskaritza**

Hezkuntza inklusiborako eskubidea bermatuko du, eta 5. artikuluan ezarritako hezkuntza-jardueren erantzukizunak betetzen direla zainduko du.

infographics & maps
eduardo pérez rodríguez

## VI. KAPITULUA. Ebaluazioa eskola inklusiboaren esparruan

**20.art.– Neurri eta laguntzen ebaluazioa**

Hezkuntza Sailarena, ISEI-IVEIren bidez. Ikastetxeena, Laguntza Zerbitzuen aholkularitzarekin.

**21.art.– Ikasleen ebaluazioa**

Neurri eta laguntza osagarriak edo intentsiboak dituzten ikasleentzat, JPPeko ebaluazio-irizpideen arabera.

Irisgarritasun-baldintzak eta egokitzapenak tresnetan, denboretan, laguntzetan, prozeduretan…

**22.art.– Ikasleak mailaz igotzea**

JPP duten ikasleen kasuan, irakasle-taldeak hala irizten dionean: funtsezko gaitasunen maila nahikoa lortu du, aldeko itxaropenak daude...

**23.art.– Ikasleen titulazioa**

JPP duten ikasleen kasuan, bertan ezarritako konpetentziak eta irizpideak izango dira erreferentzia.

**24.art.– DBH titulua lortu gabe amaitzen duten ikasleak**

Izaera akademikoa, profesionalizatzailea edo autonomia pertsonaleko programak duten prestakuntza-jarraitutasunerako proposamenak.

**VII. KAPITULUA. Derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan aniztasunari erantzuna.** 25. art.

**VIII. KAPITULUA. Prestakuntza, berrikuntza eta ikerketa.** 26. art.

**IX. KAPITULUA. Parte-hartzea, koordinazioa eta lankidetza.** 27. – 28. – 29. art.

**X. KAPITULUA. Datuetarako irispidea, horien tratamendua eta babesa.** 30. art.

**XEDAPENAK.** Gehigarria, iragankorra, indargabetzailea eta azkenengoak (2)